

Kontxi AIZARNA Manolo Urbieta hil den urtea

Josu TXAPARTEGI

Kontxi Aizarnak 39 urte pasa ditu Manolo Urbietaren ondoan. Inguruko guztien artean Manolo ondoen ezagutu duen pertsona da. Manolo zenaren hitzetan, «monumentu bat merezi du. Beti prest lan guztietarako, nire ondoan izan den pertsonarik inportanteena, laguna, dena».

Kontxi Aizarna Manolo Urbietaren bidelaguna eta motorra izan da, bidean lagundu ez ezik, aurrera bultzatu duena. Joan den irailaren 28an hil zen Manolo eta geroztik Kontxi bera gabe bizitzen ikasten ari da, nahiz eta Urbietak utzi duen ondarea bizi-bizi duen azalean.

39 urte Manolo Urbietaren alboan. Nolakoa izan da bere ondoan bizitzea?

39 urte eta horietatik 33 gaixotasuna inguruan edukiz. Oso bizimodu intentsua izan da, «intentsu» hitzak ematen duen zentzu guztiarekin; lanean, proiektuetan, gure bikote harremanean... Tentsio une handiak ere izan dira.

1977ko udan ezagutu nuen. Garai hartan Goiatzen antolatzen zituen udaleku haietarako laguntzaileak behar zituela eta han agertu nintzen. Atentzioa eman zidan ume haiek denak «gobernatzeko» zuen abildadeak, eta konturatu nintzen nolako erakar indarra zuen. Hitz egiteko moduan ere bai, baina, batez ere, begietan zuen indar berezia. Pertsonak sugestionatzeko, animatzeko eta liluratzeko. Azkenera arte mantendu du dohain hori.

Andoni Egañak egin zion kantuan oso ondo adierazten duenez, «sorgindu egin gintuen eta pixkana gu ere bihurtu sorgin» (kanta horretan Manoloren pedagogiaren laburpena dago). Eta noski, ni ere sorgindu egin ninduen. Urte horretan hasi nintzen Zarauzko Ikastolan lanean, artean irakasle titulurik gabe. Berak mar txan jarria zuen Zarauzko «Txerri kalean» musika eskola eta han ikusi nuen benetan nola egiten zuen lan umeekin. Musika eta ipuinak zituen baliabide, baina haurra abiapuntu eta helburu.

Bere ikasle bihurtu nintzen, eta,aldi berean, laguntzaile. Ikastolako lana bukatzen nuenean musika eskolara joaten nintzen. Gero eta gehiago murgiltzen hasi nintzen bere lanean. Hiru bat urtera Donostiara joan zen irakasle eskolara, eta,aldi berean, Martutenen, Ergobian eta Hernanin hasi zen musika ematen.

Nik ezin nituen bi lanak behar bezala egin eta 1982an ikastola utzi nuen Mano-

«Manolok esaten zuen duela ehun urte, orain, eta hemendik ehun urtera, haurra behar afektibo berdinekin jaiotzen dela»



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

lorekin jarraitzeko. Beti besteek utzitako lokaletan edo alokatutakoetan ibiltzen ginen grabaketak egiten. Bazegoen musikaren beharra eskoletan eta sortzen zituen kantua argitaratzen hasi ginen. Ilusio handia genuen, berak batez ere, baina bazekien lanerako ilusio hori transmititzen.

Orduan ikasi nuen zer zen enpresa bat sortzea, diru laguntzak eskatzea, Kultura Sailarekin eta argitaletxeekin negoziaketak egitea... Eta ez zen beti erraza, ez. Are gehiago kontuan izanik ni oso gaztea nintzela. Baina aurpegia ematen ikasi nuen. Ikasi nuen harrotasunez baina harrokeriarik gabe ibiltzen eta sinesten nuen proiektua behar zen lekuan aurkeztu eta defendatzen. Nolabait esateko, berak sortu eta nik saldu egiten genuen. Lanerako sekulako ilusioa zeukan eta berekin ikasi nuen ilusioz lan egiten. Garai-

hartan esaldi bat erabiltzen zuen: «ze ondo, astelehena! Aste guztia lan egiteko».

1983an salto handi bat eman genuen. Amara Berri auzoan lokal handi bat erosi genuen grabazio estudio bat eta musika esperientziazko eskola bat sortzeko. Geurea izango zena. Zoritxarrez, beharrezko maileguak sinatu eta gaixotasun larri eta arraro bat diagnostikatu zioten. Eta beldurtu egin zen. Ziurgabetasun hartan proiektu guztia bertan behera uzteko gogo etorri zitzaion, eta, nik esaten nion, «hau atzera botatzen baduzu, zure buruan ez duzulako sinesten izango da, eta honekin aurrera egin behar da». Beno, kostata baina konbentzitu nuen aurrera egin behar zuela, berak ni askotan konbentzitzen ninduen bezala. Artista zen aldetik, nahiz eta berari hitz hori ez gustatu, behar zuen atzetik bultzatuko zion edo animatuko zuen norbait.

Zurekin berak ere zerbait ikasiko zuen, ezta?

Hori berak erantzun beharko luke, baina, alafede! Ikasiko ote zuen zerbait. Nirekin pazientzia pixka bat gehiago edukitzen eta nirekin fidatzen. Hori, behintzat, ikasi behar izan zuen.

Manolo, nire ustez, bere garaiari aurreratutako pertsona zen, oso intuitiboa. Horrek ezinezona sortzen zion, ez zen ulertua sentitzen eta askotan sentitzen zuen guztia kanporatzea zaila zitzaion. Sarritan pentsatzen zuen ni bere pentsamendua irakurtzeko gai nintzela, eta egia da garai batean asko jarraitzen niola, gutxi gorabehera banekiela nondik zihoan. Nire eginak nituen bere abiapuntu eta jomugak, baita bere lan egiteko modua ere. Zailtasun handietan suspertzen eta aztoramenduetan baretzen jakin dudala esan dezaket, harrotasunez esan ere.

Hasieran ni nintzen nolabait artista handi horren atzean hasi zen norbait. Adibidez, 1980tik 1995era bitartean formakuntza ikastaro asko eman genituen Euskal Herri osoan, baita Estatu espainolean ere. Bera zen artista, bera zen sortzailea; kantatu egiten zuen, argibide pedagogikoak ematen zituen eta ni nintzen horri guztiari mugimendu pixka bat jartzeko ziona, bigarren planoan. Ez nintzen behin ere gaizki sentitu. Norbaitek noiz edo noiz esan izan dit: «badirudi bere panpina zarela, berak hariak mugitu eta...». Ni ez nintzen horrela sentitzen. Nik ere nire pausuak aurrera eman nituen, eta, bere alboan jarritz, elkarrekin egin genituen gauza asko eta asko. Elkarrekin diot berak zerbait sortzen zuenean ni nintzelako lehenengo hartzailea eta alditan oso kritikoa nintzelako; eta kritikak onartzea asko kostatzen zitzaion. Gero buelta ematen zion, baina lehenengo horretan saiaturiko zen bihotz eta arima berea defendatzen.

Musikaz nik ez dakit asko, baina musikak barruan dauzkat eta musikarekin bizitzen ikasi dut. Iritsi zen une bat bere ondoan joatetik, elkarrekin gauzak egiteko, batzuetan aurrea ere hartzen niona. Horrek sortu zuen eztabaidarik. Ikastarotan elkarrekin aritzen ginen, baina iritsi zen momentu bat bera gabe ikastaroak ematen hasi nintzena. Horrek berari poza sortzen zion «zenbat ikasi duen, nola hazi den pertsona bezala...», baina, aldi berean, jelskor ere jartzen zen.

Behin Madrilan eman behar genuen ikastaro bat, Santillana argitaletxerekin Espainiako kristau eskolek antolatuta, gaztelaniaz. Joan ginen biok eta Manolo gaixotu. Bera hotelean eta ni bi egunez, bakar-bakarrik, gaztelaniaz ikastaro bat 40 maisu-maistrari ematen. Oso esperientzia polita izan zen. Kafe orduan beste ikastaroetako jendeak esaten zuen: «*qué enseñarán ahí para que toda la gente salga tan sonriente!*». Manolo presente egon gabe ere kontziente nintzen nire lanak maila ona eskaintzen zuela.

Manolo zu gabe, ez dakit zer izango zen, baina ez zen berdina izango. Zuk bere lanean sinistu izan duzu hasieratik.

Seguru, ni bera gabe ere ez nintzateke berdina izango. Elkar osatu dugula esan daiteke. Baina, bai, benetan sinesten nuen proiektu hartan eta, lehen esan dudana bezala, neure egin nuen. Horregatik saiaturiko naiz urte hauetan guztietan saiaturiko naizen bezala. Nire bizitzako une jakin batean aukera bat egin nuen eta Manoloren munduan buru-belarri sartzea erabaki nuen, eta hor egon naiz hil den arte.

Erabaki horrek beste gauza batzuk uztea ekarri zuen, baina nire hautua izan zen. Adibidez, irakasle ikasketak egitea eragotzi zidan une jakin batean. Beti hastekotan, ez dakit zenbat aldiz matrikulatu, eta beti utzi beharra lan pila genuelako. Baina aurrerago lortu nuen irakasle ikasketak egitea.

Beti sinistu izan dut bere lanean, eta urteak pasa ahala, gehiago. Teoria eta intuizioa erabiltzen zituen bere praktikan. Garbi zeukan musikak eragin onuragarria zeukala pertsona guztietan eta zer esanik ez haurretan. Musikak dopamina sortzen du eta horrek mugimendua eragiten du. Zer egiten du pertsona batek musika entzun orduko? Batetik mugitzen hasten gara, mugimenduak plazera sortzen du eta gero emozioak aktibatzen



«Zailtasun handietan suspertzen eta aztoramenduetan baretzen jakin dudala esan dezaket, harrotasunez esan ere»

zaizkigu. Mundu guztiko jendeak erreazio paretsuak ditu. Manolok esaten zuen, orain dela milaka urte, orain dela ehun urte, orain, eta hemendik ehun urtera, pertsona bat jaiotzen denean behar berdinekin jaiotzen dela, behar afektibo berdinekin. Eta afektibitatea bermatzen baldin badugu, ume hori orekatua izango da. Gauza horiek esaten zituen, sinesten zuen umearen gaitasunetan.

Ni ikastolara itzuli naizenean berriro, azken hamabost urte hauetan, ikusi dut egungo pedagogia guztiek esaten dituztenak berak aspaldi esaten zituela. Benetan aurrerakoia izan zen. Talde zentzua, musikak sortzen digun kolektibotasunaren plazera, kooperazioa... parte hartzeko pedagogia sortzen ahalegindu beharko ginateke. Orkestra batean dago adibiderik argiena, bertako onena ere ez baita ezer taldearen laguntzarik gabe. Horrela esaten zuen berak ere, bakarrik ez zuela ezer egin, beti jendearekin egin zuela.

Bidaiak ere egin zenituzten, dezente gainera...

Egin genituen, bai, batzuk. Hasieran musika eskolako nerabeekin, uda garaian, Euskal Herrian barna lehen urteetan eta Espainian zehar, gero. Baina urrutiragoko bidaiak ere egin genituen; Frantzia, Italia, Austria... Zairen ere izan ginen hango jendearen errotioaren sena nondik zetorren jakin nahian, haien dantzak nolakoak ziren eta oinarrian zer zuten ikasten. Alemaniara, Italiara, Hungariara ere joan ginen, bertan musikarekin zer egiten zuten ikasteko.

Behin zer okurrituko eta Argentinan egingo genuela lehen aurkezpena. Horrelako ezustekoak ematen zituen Manolok. Diasporarekin harremanetan jarri eta han ibili ginen Buenos Aires, Mar de Plata, Nekoetxea eta Rosarioko euskal etxeetan gure lanak erakusten. Izan ere, hainbat oso egokiak ziren umeei euskara irakasteko.

Musikari klasikoei buruzko dokumentaltxoak egiteko ere bidaiatu genuen: Norvegia, Errusia, Txekia, Alemania...

Zer geldituko da Manoloren lanetik?

Gauza bat da zer geldituko den eta beste bat zer gelditu beharko lukeen. Geldituko dira, dudarik gabe, bere kanta, eta ez da gutxi. Hainbeste urtetan iraun badute umeei orduan eta orain behar berdintsuak dituztelako izan da. Gaurko heziketa mugimendu guztiek esaten dute haurra izan behar dela abiapuntu eta helburu; ia noiztik esaten zuen Manolok hori. Hemen inork esaten ez zuenean, umearen gaitasunetan sinesten zuen,

umea jaiotzatik gaitasunez betetako pertsona dela esaten zuen eta guk gaitasun horiek garatzen lagundu behar diogula. Lagundu baina presarik gabe, umearen erantzuna lasai itxaroten. Hori esaten da gaur egun... gero, beste gauza bat da zer egiten dugun. Hezitzailearen paperari buruz pentsatzen zuena eta gaur esaten dena parean daude. Pentsa, 30 urtetik gora pasa dira ordutik. Zentzu horretan frustrazioa ere sentitzen zuen; «esaten dut baina ez dit inork kasurik egiten».

Lehen esan dut, geldituko dira bere kantak eta ez da txarra, baina nik bai nahiko nukeela kanta horien azpian dagoen pedagogia gelditzea, lan egiteko modu hori, umea begiratzeko modu hori, umea entzuteko modu hori, hezitzaileok autokritika egitearen behar hori...

Bere lan guztietatik horrekin gelditzen naiz, haurra begiratzeko zuen gaitasunarekin, itxaroteko gaitasunarekin. Helduekin igual pazientzia askorik ez zeukan, baina umeekin izugarria: «ez eman presa umeari, jasoko duzun oparia munduko oparirik onena izango da. Haurrak gaitasun hori badauka, bera ondo sentitzen denean eta zuk emandakoa ondo asimilatzen duenean, erantzungo dizu».

Aitona-amonak eta biloben arteko harremanari buruz asko eman zuen azken urteetan.

82 urterekin hil da. Lau biloben aitona. Txikitan asko bizi izan zuen etxea, aitona-amonak, sukaldea esaten den hori. Beldur zen teknologia berrien indarrarekin; beheko kafetegian ikusten genituen bi urteko umeak gurasoen mugikorrean *patrulla canina* eta antzekoak ikusten eta esaten zuen, «gurasoak hor daude, nola da posible hain ume txikiak mugikorra eskuetan...?». Beldur zen horiek denak ez ote duten komunikazioa zapuztuko eta hor saiatzeko zen bere oroitzapenekin kanta berriak sortzen. Aitona-amonak eta bilobek gauza asko dute partekatzen.

Fraile ikasten ibili izanak eman zion bizitzaren aurreko halako aldentze bat.

Halakoa zen, materialtasunik gabea. Liburu bat edo... ez dakit, gurea edo kanpotik ekarritakoa edo... norbait ikusten bazuen interesarekin, «tori! eraman!» esaten zuen. Norbaitek ez dakit zertarako kanta bat egiteko eskatzen bazion, egin arteko bakerik ez zuen izaten eta ez zen arduratzen fotokopia bat beretzat jasotzeaz ere. Horrekin bezala diruarekin, gogoratzen naiz oheratzerakoan galtzak erantzi eta txanponak erortzen baziren esaten zuela: «ze ondo! Eguna bukatu da eta dirua sobratu zait». Horrelakoa zen.



«Gaurko heziketa mugimendu guztiek esaten dute haurra izan behar dela abiapuntu eta helburu; ea noiztik esaten zuen Manolok hori! Inork egiten ez zuenean, umearen gaitasunetan sinesten zuen Manolok»



Hil denetik zer sentsazio bizi dituzu?

Sentsazio asko dauzkat... denbora honetan guztian gauzak ondo eginaren sentsazioa gelditzen zait, eta azken unera arte hor egon izanarena. Sentimendu kontrajarriak ere badituz. Galera batek uzten dituen hutsunea eta tristura, eta, aldi berean, sufrimendua bukatu izanaren lasaitasuna.

Hainbeste omenaldi, hainbeste dei, hainbeste gauza eder... pozgarria da baina aldi berean karga ere bada, motxila handi bat bizkarrean izango banu bezala. Bere lanaren legatua, ardura, nire gain dago momentu honetan. Lagun batek esaten zidan lehengo batean: «zuk nahi al duzu karga hori dena eraman?». Ez dakit nahi dudana. Nik banekien zer egin dugun, baina orain, agian, kontzienteago egiten ari naiz, bera falta denean, distantzia bat edo jarri denean...

Neure lanerako ere bertigo pixka bat ematen dit. Kantak hor daude, nik kanta horiekin egiten dut lan, niretzako horietako bakoitzaren atzean istorio bat dago, istorio pertsonal bat; nik badakit nola sortu den kanta bakoitza, badakit nola esperimintatu den, badakit nola grabatu den... Horrek denak sentimendu asko mugitzen dizkit, emozio asko, hori kudeatzen ikasi behar dut aurrera egiteko. Laguntzarekin ari naiz pixkanaka.

Hala ere, sentimendu berezi bat badauk, eta, Miren Amurizari zutabe batean irakurritakoa izanik, nire egin dut: «ondo maitatzea zaintzea da, ez itotzea; onartzea, ez aldaraztea; bestearekin kritikoz itatezea, ez epaitzea». Inolako lotsarik ga-

be, Manolo ondo maitatu dudala esan dezaket, askatasunez eta hala nahi izan dudalako. Berak ni ere bai.

Utzi digun altxorarekin, zer?

Jaione Escudero hor dabil, Xixupikaren muin pedagogikoa zabaldu egin behar dela esanez, kantuekin bakarrik ezin garelako gelditu. Irakasle-eskolan formakuntza musikala ematen da, baina agian ematen da musika espezialista izateko. Baina musikak denona izan behar du; beldurra ona edo txarra izan, guztiek dute musika eskubidea. Ni konturatzen naiz gaur egun praktikak egitera etortzen direnekin. Kantak igual ezagutzen dituzte, baina ez kanta bakoitzaren azpian dagoena. Hori ezagutzea eta zabaltzea gusatuko litzaidake.

Musikari ematen zaion ikuspegia ere hor dago. Manolorentzat helburua ez zen musika bera –sortuko da musikariren bat tartean–, baizik eta musika baliabide bezala erabiltzea umearen heziketan. Musika heziketarako sekulako tresna da. Neurozientzia bera ari da ikertzen nola eragiten duen musikak gure garunean. Bizitzan plazer handiena sortzen duen elementu modura hartzen da musika. Dopamina askatzen du, janariak, sexuak edo drogek egiten duten bezala. Irako ikastaroetara maisu-maistrekin lanera joaten ginenean, zeintzuk ziren gure tresnak? Kantua eta dantza. Eta ikusgarria zen 40 maisu-maistra, elkar ezagutzen ez zutenak, bi ordu elkarrekin pasa eta hain pozik ikustea. Musikak sortzen zuen hori guztia eta Manolok bazekien.